

# BERRIGARA

145. zenbakia

JARDUN Elkarte

1994, apirilak 15

*Elkarrizketa:*

**Paula Alberdi,**  
**Osintxuko sendagilea**

## Mendi Astea prest



Dr MARTENS



egizabal

LEVI'S 501 XX USA



CARTUJANO

PEYTON

PANAMA JACK



- ZER ESKAINTZEN DU ZABETXek?
- Iturkin eta igeltseritza lanak egiteaz gain, bainuaren, gelaren edota etxe osoaren diseinaketa ere egiten dugu. Etxeen berriztapen lanetan, errestaurazioan, ere esperientzia badugu.

• NON DAGO ZABETXen ARRAKASTAREN GAKOAK?

- Enpresan lanean dihardugunak iturkinak eta igeltseroak gara eta berogailuak eta gasa jartzen ere badakigu. Horrela, bada, etxeren baten obraren bat egin behar izanez gero, bezeroa gurekin harremanetan jarri ezkeru, geuk egingo diogu guztia eta ez du beste gremio-koekin harremanetan jarri beharrik izango.

• HORRELA KOSTUAK MERKETU EGITEN DIRA...

- Hori da, efikazian irabazten dugu eta beste batzuetan galzten diren denbora tarte horiek irabazten ditugu. Izan ere, gutariko edozeinek egin baitzake edozein lan. Ondorioz, kostuak merketu egiten dira eta obra azkarrago amaitzen da.

# ZABETX

## INSTALAZIOAK

Masterreka, 14

☎ 76 54 14



Julio Zabaleta eta Luis Etxab

**ZABETXekin denbora aurreztu eta buruhaustek ebitatuko dituzte**



**BEROGAILU  
ETA GAS  
INSTALAZIOAK**

**ITURKINTZA  
AZTERLANAK**

**BAINU  
DISEINAKETA**

**IGELTSERITZA  
LANAK**




## Z E R B E R R I D A ?

### PATXI URIBESALGO

#### Zezenzaleak taldekoa

**- Zehaztuta al dago Pazkuetakoko txekorketa?**

- Iaz bezala, pikadorerik gabeko txekorketa izango da maiatzaren 22an, 6etan, eta dagoeneko Marcos Oiarzabal nobillero naparra lotuta daukagu. Bestea oraindik ez. Gure asmoa bai txekorrak eta bai toreroak Euskal Herrikoak izatea da, zezenak hemengoak ere badirela aldarrikatzeko. Txekorrak Castejon-go "Pascual"enak izango dira. Plaza joan zen urteko bera izango da (2.000 lagun sar daitetze) eta hiru entzerrero egingo dira. Aurrekontua milioi t´erdi ingurukoa da eta autofinantziazioa lortzea da gure helburua.



**- Polemika bersortzeko beldurrik?**

- Ez dugu polemikarik nahi. Joan den urteko arrakasta ikusita berriz ere txekorketa antolatzea pentsatu dugu, jendeak ere eskatzen duelako. Dena den, badakigu txekorketaren aurkakoak izango direla.

**"Iazkoa ikusita, txekorketa antolatu dugu jendeak ere eskatzen duelako"**

## I T U R R I O N E T I K

### "Miserableak" ETBrako grabatzeko negoziatioetan

Bergarako Musika Eskola eta Euskal Telebista "Miserableak" ikuskizuna ETBrako grabatzeko negoziatioetan ari dira. Oraindik ezer ofizialik ez dagoen arren, akordio batera iritsi ezker, grabazioa Donostiako Miramongo estudioetan egingo litzateke (egun batean entsaiua eta beste batean grabaketa). Badirudi ETBren asmoa "Miserableak" rock opera grabatu eta berau emititzeko baimena lortzen duenean ikusentzuleei eskeintzea dela. "Miserableak"ekin jarraituz, larunbat honetan Donostiako Victoria Eugenia antzokian antzestuko da.

## ESAN DUTE

"Gazte mugimenduan aro berri bat zabaltzen ari dela baieztatu da Etxarri-Aranatzen, gazteen artean dauden borroka eta adierazpenak metatzea posible dela ikusi da"

**MIKEL ZUBIMENDI**  
Jarraiko ordezkaria  
EGUNKARIA

"Niretzat Reala talde haundietako bat da, hemen baino hobeto ez nago inon. Oraindik ere, gehien maite dudana taldean, hau da Realean, jokatzearekin ametsetan egiten dut. Bestalde, zalegoak pazientzia pixkat izan behar du. Badakit 87tik urte asko pasa direla, baina talde txapeldun bat osatzea ez da gauetiko egunerako lana"

**AGUSTIN ARANZABAL**  
Realeko jokalaria  
MARCA

"Bergarako emakume batek telefonotik deitu dit TVE 1 kateak "Hombre rico, hombre pobre" telesaila emititzeari utzi diolako protestak. Eta uste dut arrazoi guztia duela"

**JOSE JAVIER ESPARZA**  
Telebista kritikoa  
EL DIARIO VASCO

Emteale Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefono eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Patxi Urbesalgo

Aldeberri, 13. 20.570 Bergara.

76 03 97

**Zuzendaria:**

Patxi Urbesalgo

**Erredakzioa:**

Patxi Urbesalgo, Eduardo Mendibil eta

Patxi Urbesalgo

**Maketazioa:**

Patxi Urbesalgo eta Eduardo Mendibil.

**Publizitate eta harpidetzak:**

Patxi Urbesalgo eta Gorka Elorza.

76 03 97

**Elaboratzaileak:**

Patxi Urbesalgo, Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Patxi Urbesalgo, Angel Elkorobereibar, Juan Martin

Elkorobereibar, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Patxi Urbesalgo, Alzela, Ainhoa Lete, Jon Ander

Elkorobereibar, Mikel Lizarralde, Monika

Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa

Elkorobereibar, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra

Elkorobereibar, Ane Miren Goenaga.

**Familia eta marrazkiak:**

Patxi Urbesalgo, Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Elkorobereibar, Jose Martin Ezenarro

Elkorobereibar, Julian Ezenarro.

**Portadako argazkia:**

Patxi Urbesalgo

**Argazkia:**

Patxi Urbesalgo

**Irudia:** 3.500 ale.

**Repartimendua:**

Patxi Urbesalgo, E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:** BERRIGARA

**Argazki gordailua:** SS 50/ 91

**ISBN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen

argazkiaren adierazitako esanen eta iritzien


erantzunkizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura  
sailearen laguntza jaso du





**TIERRAS DE PENUMBRA**

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22,15.

Astelehena: 19.30.



PASTORA VEGA


KITI MANVER

En un momento de la vida de una mujer, se narra la historia de un hombre que se enamora de ella y la seduce. El hombre es un sacerdote que se enamora de una mujer que es una prostituta. El hombre es un sacerdote que se enamora de una mujer que es una prostituta. El hombre es un sacerdote que se enamora de una mujer que es una prostituta.

MANU MI GOMEZ PUEBLA

**TODOS LOS HOMBRES SOIS IGUALES**

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.



**BLANCO**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ **Richard Attenborough**ek zuzenduta, *C.S. Lewis* (**Anthony Hopkins**) poetaren bizitzan oinarritutako filma. *Joy Gresham* (**Debra Winger**) idazlea ezagutu eta maitemindu egingo da baina oraindik ere gorriak pasa behar dituzte elkarrekin. Musuzapia ezinbestekoa.

▼▼ **Imanol Arias, Antonio Resines eta Juanjo Puigcorbe** dibortziatu eta elkarrekin bizi dira. **Pastora Vega, Maria Barranco eta Kiti Manver** beren emazte ohiak kontra dituztela, aurrera egin beharko dute asistenta (**Cristina Marcos**) baten laguntzaz...

▼▼ Berlingo Zine Jaialdian aurkeztu zuen **Krzysztof Kieslowskik** bere trilogiaren bigarren zatia. *Azulen* drama bat aurkezten bazigun ere, bigarren honetan, komedia tartekatuz, bikote baten inguruko gorabeherak azaltzen dizkigu poloniarrek. **Julie Delpy** eta **Zbigniew Zamachowski**ekin.

**Deiak**

▼ **Futbolin txapelketa.** Bilbo Oilagorran, Pol-Polen eta Pizinetan. Zozketa 4retan Pol-Polen.

▼ **Igeriketa.** 5 urtetik gorako entzako ikastaroa apirilaren 18an aurrera pizinetan.

▼ **Argazkiak.** Josexo Aranzabal en erakusketa Kultur Etxean.


▼ **Mendi Astea.** Mendiko argazkiak eta antzinako materialen erakusketa Pol-Polen.

▼ **Mendi irteera.** Igandean hilak 24, Castrovalnera egun osoan irteera (afizionatu guztientzat) zuzen-ematea Pol-Polen.

▼ **Odol ematea.** Asteazkenean 19.00etatik 21.00etara Seminarioan bajuetan.

**Ogia**

▼ **Igandea 17:** Mizpildi.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 16:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Igandea 17:** Camacho/Española
- ▼ **Astelehena 18:** Puy/Corcuera
- ▼ **Asteartea 19:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 20:** Estella/Amezaga
- ▼ **Osteguna 21:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Ostirala 22:** Camacho/Azkoaga

**Zure konfidantzako denda**



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

**ARRASATE**



**Antxieta** antzerki taldeak "Nor Nori Nork" bere azken lana eskeiniko du larunbatean 22.30etatik aurrera Zabalotegin.

Talde afizionatu honek hamaika lan eginak ditu antzerki munduan bere sorreratik, 1981. urtean. Bere lanen artean, "Lapurreta urtzua", "Bi aboko ezpata", "Komeri zabarrak" edota azken hau nabarmendu daitezke.

Iñigo Agirre taldeko kidearen esanetan, "92ko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatutako genuen "Nor Nori Nork" eta amateur saria eskuratu genuen. Inprobisazio hutsetik sortutako lana da eta sketschez osatutako lana dela esan daiteke, ez da hasiera eta amaiera duen istorio horrietako bat. Musika eta dantza ere badira tartean; Sahatza dantza taldeak dantzekin lagundu zigun eta Xabier Euskitze bertsolariak, berriz, a-bestien testuekin".

Agirrek umorezkotzat jotzen du arrakasta gehien eman dien lan hau; "komedia bat da eta ordu l'ardi entretenigarria

## Antxieta antzerki taldearen

# NOR NORI NORK

antzezlan Zabalotegin larunbatean 22.30etan



Antxieta taldeak umorea landu du "Nor Nori Nork" bere azken antzeslanean.

egiten saiatu gara; 12 lagunek antzesten dute lana eta eszenografia ez da beste mundukoa baina argiek berebizitasun bat ematen diete istorio ezberdinei. Hori bai, berriz ere taldekako lana izan dela azpimarratuko

nuke eta Ignacio Tolosari (Bederen-1 eta Maskaradako kidea eta gure zuzendaria) Edi Naudo (In fragantiko zuzendaria) eta Mitxel Gorrotxategi zarauztarrak lagundu diote oraingoan".

Bergarako eta lan honen egiten duten 18. emankizuna izango da (kafe teatroarako moldaketa bat ere egina dute) eta aurrera begira ere badu zerbait Antxieta taldeak: "aurten lan berri bat kaleratu nahi dugu urte amaierarako baina oraindik ere lan berria

gorpuzten ari gara" adierazi digu Agirrek.

Talde Azpeiti eta Azkoitiko 16 urtetik 63 urtera (Pilar Aizpitarte, lan honetan papertxo bat duena) bitarteko 25 lagunek osatzen dute eta Iñigo Agirrereren ustetan, "talde profesionaleri guri baino errezagor zabaltzen zaizkie ateak baina guri behintzat antzerkia aurrera ateratzeko gogoia eta lagun giroa ez zaigu falta".

Larunbaterako sarrerak 300 pta. tan jarriko dira salgai.

**Sketschez osatutako umorezko lana da Antxieta taldearen azken muntaia**

**Iletxo** Ileapaindegi mistoa

---

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA

**MAHER**

**Biltegiak L.E.**

**Oihal etxea**

Bidekurutzeta 29  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

**ETXALAR**

**KRUASANTEGIA**

Gosariak eta meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68



## Herriaren alde

Aspaldi gabe Santa Marinako, San Pedroko, Seminarioko eta beste zenbait harrizko etxe ederretako horma eta atetan agertu diran pinturaz egindako idazkunak bergarar gehien-gehienentzat mingarriak izan dira, gure herrian be bihotzondoaz eta eder-senez oso gutxi dauken batzuren batzuk ba diranaren erakusgarri garbi dira eta.

Bergararrok gure aurrekoek laga deuskuezan eraikintza bikainez, hainbat etxe, eleiza eta ermita ederrez harro egon behar genduke, izan daitekeen sentimenik txikienak be horrei bere onean eusten ahalegintzea eskatzen deuskula.

Zoritxarrez, horrekin ahaztu eta bere eskeak eta nahiak guztienak diren ogasunak hondatuz adierazi ditue. Zer egiten ziharduenaz konturatzeke egin dabela pentsatzea nahiago dogu, bestela bere jokabidea gaitzesteaz gainera eurentzako hasarrea eta nazka adierazi beharko genduzke eta. Herri osoaren gaitzespenaz jabetu eta guztien bainan batez be euren onerako jokabide horrek behin-betiko laga daginezaneke eskea entzun, eta aurretantzean holakorik egingo ez dabena-ren itxaropena agertu nahi deutsegu.

Bestalde, jokabide hori oraindik itxusiagotuz, bere idazkun horretan inorekiko irainak agertarazi ditue. Hori ezin daiteke inondik inora onartu eta, gainera, behar bada zenbait gauzatan eurekin bat letozkeen herritar asko eta asko bere aurka jartzeko biderik zuzenena aukeratu dabela esan behar deutsegu.

Gure dei hau entzun eta onartuko dabelakoan.

### BERGARAR TALDE UGARI BAT

#### Udal komisioren funtzionamenduz

Plenoetara joateko ohitura duen edozein hiritarrek herriko funtzionamendua Udal Komisiotan gauzatzen dela pentsa lezake. Sarritan entzun diogu Alkateari zenbait gaietaz mintzatzerakoan gai horiek Komisiotan aztertutakoak direla eta ez dagoela euretaz eztabaidatu beharrik Plenoetan.

Geure eritzia, aldiz, oso desberdina da. Komisiok ez dira erabakiorrak, euren lana Gobernu Batzordera proposamenak bidaltzea da. Gero honek (Bergaran, PNV eta PSOE) erabakiak

hartzen ditu eta momentu horretan ezer gutxi interesatzen zaio komisiok esandakoa, nahiz eta proposamenak aho batez egindakoak izan.

Guk, Alkateak Plenoetan bezala (plenoetatik kanpo hainbeste ikusten ez dugunez), komisiok behar beharrezkoak direla uste dugu. Horregatik hartzen dugu parte Udaletzeko komisiodesberdinetan eta hemen salatzen dugun egoera zuzen zuzenean ikusten dugu.

Baina komisioren lana kontutan ez hartzea gogorra bada, askoz grabeagoa da parte hartzeko aukerarik ere ez izatea zenbait kasutan bildu ere ez direlako egiten. Zenbat aldiz bildu da Auzoetakoa? Hiru urte pasa dira eta, guk dakigunez, bi aldiz bakarrik. Zergatik Hezkuntzaz arduratzen zen komisiok ez du aktibitatearik joan den kurtso bukaeratik?

Hori dela eta Alkate jaunari bere lan estiloa aldatzeko eskatzen diogu eta ez bada hori bere asmoa, komisioren aipamenik ez dezala egin plenoetan. Oso friboloa da.

Azkenik, beste eskaera bat: zein komisiok proposatu zituen Eginen aurkako neurriak?

### HBKO ZINEGOTZI TALDEA

## Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





# JARDUNen eta Udalaren arteko hitzarmena aurrera

*PSE-EEK izan ezik, beste alderdi guztiak baieztatu zuten JARDUNendako dirulaguntza*

**Astelehenean** egini-ko Osoko Bilkuran onartu zuen Udalbatzak JARDUN euskara elkarteak 1994 eta 1995ean jasoko dituen dirulaguntzei buruzko hitzarmena. Udalaren eta JARDUNen arteko hitzarmena EAJ, HB eta EAren baieztatu botuekin onartu zen; PSE-EEK ezetza eman zion. Sozialistek JARDUN eta Berrigara astekariak egiten duten lanarekin eta aurrera begira eskuartean dituzten egitasmoekin ados egon arren, ez datoz bat Udalak euskara elkarteari emango dion diru kopuruarekin. Alvaro Esparza PSE-EEKo zinegotziak esan zuenez, "ez baitator bat Udal Gobernuak, herriko erakunde eta elkar-teei dirulaguntzak banatzerakoan iaz jasotako arekiko % 15a jeisteko hartutako erabakiarekin".

**Aurrekontu guztiaren hiruren bat**

Gorka Elorza JARDUNeko ordezkariak, PSE-EEren esplikazioari buruz, zera adierazi du:

*"Uste dut ezin dela zifra butsetan oinarrituta hitzegin. Kontutan hartu behar da Jardunek bainat ibarduera berri jarri dituela martxan: trikiti-xxa eskola, hainbat lehiaketa, B ereduko gazteentzako euskara errefortzuak... Gartzela Zabarreko kultur eta astialdi zentrua ere laster jarriko dugu martxan. Uste dugu ibarduera horiek Jardunetik kanpo antolatuko balira dirulaguntza izango luketela eta ez litzateke normala Jardun barruan antolatuta laguntzarik ez izatea. Bestalde, kontutan hartu behar da Udalak Jarduni bere ekintzetarako eta Berrigararako ematen dion laguntza aurrekontu guztiaren hirutik bat izango dela".*

Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, JARDUNek 4.848.025 pzta. jasoko ditu urteko eta BERRIGARAK, berriz, 6.929.225 pzta. 1994rako JARDUNen presupuestoa 11 milioi pezeta ingurukoa da (BERRIGARA kontutan hartzeke), beraz, JARDUNI bere presu-

puestoaren % 48a ematen dio Udalak. BERRIGARAK, bestalde, 23 milioi pzta. inguruko presupuestoa aurrirakusi du 1994 urterako eta Udaletik jasoko duena aurrekontu osoaren % 29a izango da.

JARDUN elkarteak 465 bazkide ditu gaur egun eta Berrigara aldizkaria argitaratzeaz aparte, euskararen normalakuntza bultzatzeko hainbat ihar-duera antolatzen ditu urtean zehar.



JARDUNek iaz egindako Batzar Orokorra

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**  
 San Lorenzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
**BERGARA**

**FERNANDEZ**  
  
**Oihal puskak**  
**Oihalak**  
 San Antonio, 3    Ibargarai, 2  
 ☎ 76 22 93    ☎ 76 53 22

**DENA**  
**100etik**  
**ZURE OPARIENTZAKO**  
**Simon Arrieta, 3**



◆ **1958ko kintoen afaria**

1958ko kintoek (1937.ean jaiotakoak) anaiarteko afaria izango dute maiatzaren 7an. Apirilaren bukaera baino lehen interesatuek izena eman beharko dute Kortazar txokolaterian (76 20 62) edota Biona pentsutan (76 23 79). Prezioa 2.000 pta.koa da.

◆ **Alkatearen oharra**

Herritarrei jakinarazten zaie, eraikuntzak berregokitzeko aholkularitza zerbitzua hemendik aurrera asteartetan emango dela 9etatik 13etara, Irizar Jauregian, orain arte zerbitzua ematen zen leku berean.

◆ **Bandaren kontzertua**

Udal Musika Bandak ondoko lanak eskeiniko ditu igandean, 12.30etan, Novedadesen: *El abanico* (Javaloyes), *Júpiter* (Holst), *En las estepas del Asia Central* (Borodin), El metrónomo de Maelzel (Miguel Glz. Bastida) eta *A sentimental selection* (Scheffer).

◆ **Herri Batasuna**

Asteazkenean, apirilak 20, Herri Batasunaren asanblada orokorra izango da 19.30etan Arrano Zaharrean. Hautagai zerrendaren osaketa egingo da eta ondoren kanpaina prestakuntza.



Plan Berezi honetan Gune Historikoak etorkizunean izango duen itxura jasotzen da.

**Gune Historikoko Plan Berezia martxan**

*Herritarrek hilabeteko epea dute alegazioak aurkezteko*

Martxoaren 28ko Plenoan alderdi guztiek aho batez onartu eta gero, Gune Historikoaren Erreabilitaziorako Plan Berezia apirilaren 27ra arte ikusgai izango da Irizar Etxean. Fetxa horretan herritarrek iradokizunak eta planeamendurako beste alternatibak aurkezteko epea amaituko da. Teknikariek erantzun eta Udalarri erabaki proposamena luzatu ondoren, Udalbatzak erizpide, helburu eta erabaki orokorrak onestuko ditu. Behin ardatz nagusiak onartuta, teknikariek dokumentua burutuko dute eta Udalbatzak hasierako onar-

pena emango du. Azkenik, dokumentua hilabetez jendeaurrean egongo eta Diputazioak eman beharko du behin-betiko onarpena.

Plan hau Ignacio Azpiazu eta Javier Yeregi arkitektoek egin dute eta bertan zoruaren erabileraren nondik norakoak eta babes ofiziala beharrezkoa duten elementuen behar urbanistikoak jasotzen dira.

Etorkizunera begira Gune Historikoak izango duen eboluzioa eta interes bereziko etxe eta elementuen gainean egin daitezkeen akzioak zehazten dira.

**KOXKA**

- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

• Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.  
• Era guztietako konponketak, garbiketak...  
• ESKAINTZA BIKAINA: 4 gupil erosi eta 2 ordaindu!!

**Mekolalde**

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A  
U  
T  
O  
A  
K

**LARREA**

TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA





Oraingo behintzat ez da Azoka Plaza berria zabalduko.

## Eskaera bakarria Merkaturako

### Atzo zabaldu ziren azokako postuak adjudikatzeke plikak

Ostegun eguerdian, Azoka berriko postuak lehiaketa bidez adjudikatzeke plikak zabaldu ziren Udal bulegoetan. Eskaera bakarria aurkeztu zen, 2. zenbakia duen postuarengatik 4.600.000 pta., 3. zenbakiagatik 4.500.000 eta 11. zenbakiagatik 4.300.000 eskeiniz. Printzipioz 2. zenbakiko postua eskuratuko luke baina, beste inor aurkeztu ez denez, alkatearekin elkarriketatu eta eskaera bertan behera uzteko asmoa zeukan eskaera aurkeztu zuenak. Victoriano Gallastegi alkateak adirezi digunez, "postu bakar batekin ezin daiteke

merkatua zabaldu. Gutxienez 6 edota 7ekin zabaldu beharko litzateke, beste jende bat animatzen joateko".

Merkatu zaharreko dendariak Azoka berrira joateko asmorik ez dutela azaldu dute behin eta berriz. Merkaturako 3 komertziantek, beste bi komertzianteeekin batera, Herri-lagunak kalean (Bankinter alboan) zentru komertzial bat jartzeko hirigintza kontsulta aurkeztu dute Udaletxean. Printzipioz, bertan, arraindegia, harategia, fruitategia, oiha denda eta izoztuak saltzeko postuak joango lirateke.

### ◆ Gorka Iglesias intsumisoari epaiketa

Atzo osteguna epaitu zuten Donostiako Auzitegian Gorka Iglesias bergarar intsumisoa. Fiskalak 2 urte, 4 hilabete eta 2 egunetako kartzela zigorra eskatzen du eta defentsak absoluzioa. Hurrengo epaiketa Josu Aramendiren aurkakoa izango da hilaren 21ean.

### ◆ Hitzaldia UNEDen

Ostegunean, hilak 21, Sabino Cuadrak "Iglesia y sociedad: razones para una práctica anticlerical" izenburuko hitzaldia emango du 19.30etan UNEDen.

### ◆ 1943eko kintoak

1943 urteko kinto bergararrek beren anaiarteko eguna ospatuko dute apirilaren 23an. 7etan San Pedron meza izango da eta 9etan afaria Azpeitxi Jatetxean. Izen-ematea Azkarate estankotan egin daiteke.

### ◆ Hitzaldiak Antzuolan

Asteartean, hilak 21, Rwandari buruzko hitzaldia emango du Jose Jabier Etxeberria Medicus Mundiko partaideak Udal Aretoan arratsaldeko 8etan. Hilaren 21ean Brasili buruzkoa emango du Angela Da Silva brasildarrak.



# ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

# KIZKUR



## Ileapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

# SURPE

## Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

# LONBIDE

## OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA



## Hezkuntza

# Karrera aukeraketa

- Nola laguntzen diezue Ipintza Institutuko ikasleei karrera aukeraketan?

- Lehen eta 2. mailan hasten gara ikasleei testak egiten. Metodori e-rezena da informazio objektiboa jasotzeko. Informe bat egiten dugu bere ezaugarriak eta letrak edota zientziatarako dituzten gaitasunak aztertuz; 3. mailan hartu behar izaten dute lehen erabakia (letrak, zientziak edo mistoak) eta aholkua ematen diegu.

- Testek ez dute hutsik egiten?

- Gaitasunaren aldetik arazoak sor daitezke batzutan. Nahiz eta batek biologia oso atsegina izan, bere gaitasun lojikoak ona ez bada frakasoa etor daiteke. Gaitasunaren datuak errendimenduarekin konparatu beharra dago eta tesak ondo interpretatu. Dena den, ikasleek 3. mailan zientziak hartu, ikasturte horretan ondo pentsatu eta UBI mistoak egiteko aukera daukate. Baina

beti ere ikasleen gaitasunak, interesa eta errendimendua kontrastatu eta aholkuak ematera mugatzen gara. Ikasle eta gurasoekin ere biltzen gara



**AMAIA EZENARRO**  
(psikologoa)

karrerei buruzko informazioa emateko.

- **Ikasleek argi izaten**

**"Ikasleen gaitasunak, interesa eta errendimendua kontrastatu egiten ditugu aholkuak eman aurretik"**



Ikasleek psikologoaren aholkularitza izaten dute karrera aukeratzeko. Argazkian, ikasle talde bat Selektibitatea egiten.

**dute zer egin?**

- Normalean ez. Bakoitzak zer gustatzen zaien eta bere burua non ikusten duen galdetu behar dio bere buruari, ondoren horren arabera erabakia hartzeko. Eta beste aspektu batzuk (lan eskeintza eta horrelakoak) alhora utzi gabe izaten bada, ba askoz hobeto.

- **Zein karrera aukeratzeko dira gehien?**

- Azkeneko aukeraketan, Injenieritza Teknikoa, Enpresaritza, Sanitariak eta Fisika eta Kimika zientziak; letretan, berriz, Psikologia, Pedagogia, Logopedia eta Enpresaritza (mistoak hartuz gero). Zuzenbidea, Turismo eta Kazetaritza jeitsi egin dira eta Majisteritzak musika eta kirol arloan eskeintzen dituen espezialidadeek ere erantzun ona izan dute. Gauza da lanerako garantiarik ezin dela gaur egun inon eman eta norberaren nortasunak ere badu zeresanik lana bilatzeko orduan.

- **Zer moduz erantzuten dute ikasleek Institutua uzterakoan?**

- Gehienetan karrera-ko lehen zikloa aspergarria egiten zaie eta bigarrena erakargarriagoa izaten da praktikak egiten eta espezialitateekin hasten direnean. Garrantzitsuena adaptazio on bat izatea da; bestela frakasatzeko arriskua dago.

**Mujika**  
**Jantxidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

**LAZKANO**

**Oinetakoak**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
**BERGARA**

**LITAR**



**altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



# BERGARAKO DISKOTEKA

**Gaztetxoendako  
alkoholik gabeko  
diskoteka...**

**Larunbata 16 eta igandea 17**


*Opariak, kamisetak.... FESTA GIROA!!*

**URBANO ZERBITZUA: IRTEERA URRATS TABERNATIK.**

**IRTEERA: Arratsaldeko 6etan eta 6.30etan.**

**ITZULERA: Gaueko 9etan eta 9.30etan**

## ZARXUFO



**SAN JUAN BERGARA**

☎ 76 35 51

**...eta gauean, 12etatik  
aurrera diskoteka  
zerbitzua**

*Gaueko 12.30etatik 13.30etara bitartean,  
CODORNIU KOPA bat oparitzen dizuegu.*

# LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**15 URTEKO ESKARMENTUA,  
PROFESIONALITASUNA, BETI  
ABANGOARDIAN EGOTEN  
SAIATZEN GARA**

LILURA EDERTZE  
INSTITUTUAN hainbat  
tratamendu egiten dira nahiz  
aurpegiko arazoak  
konpontzeko: zimurrak,  
kouperosia, gazteberritzea,  
tonifikazioa, aknea; nahiz  
gorputzekoak: formen  
modelatzea, tonifikazioa,  
hanka astunak, gehiegizko  
pisua, zelulitia eta  
gizentasunerako  
norberarentzako dietarekin  
(bakoitzak bere dieta).  
Gainera, PHSYOMEDICAL  
INTERNATIONAL zentruko  
medikuak hainbat mediku  
terapia burutzen ditu norbere  
irudi estetiko eta gorputzekoari  
laguntzeko eta zuzpertzeko,  
LILURAN egindako tratamendu



*LILURA EDERTZE INSTITUTOko pertsonala*

estetikoak areagotuz.  
Baina pertsona guztiek ez dute  
tratamendu berezien beharrik.  
LILURAN, beraz, estetikarekin  
zerikusia duten iharduera  
arruntagoak daramatzagu:  
depilazioa argizariz (bero eta  
botatzekoa), depilazio elektrikoa

(Blend sistema), aurpegi  
azalaren garbiketa, manikura,  
pedikura, atzazalak,  
horzkatzeari lagatzeko  
tratamendua, norbera  
makilatzeiko ikastaroak; eta  
aurpegiko nahiz gorputzerako  
aparriluak ere baditugu.



**P**aula, pomadak eta medizinar egiteko nondik ateratzen duzu jakinduria?

- Hara, nik etxean asko pasatu dut. Duela urte asko Añorgako Andrearekin ibili nintzen eta harek asko erakutsi zidan. Liburuak ere baditut.

- **Nor da Añorgako Andrea?**

- Andra bat... Medikuak salatuta kartzelan ere egon zen eta kartzelan ere sendatu zituen gaisoak. Berak ematen zizkidan errezetak, eta gaiso bat aztertzen zegoenean ere berarekin izaten nintzen. Asko ikasi nuen berarekin. Baina etxean gauza asko pasatu zaizkit eta horrela asko ikasten da. Nere semea, medikuengatik, hil egingo zitzaidan; 16 urtekin haizkorarekin hanka moztu zuen eta ematen zioten analisiak hartu eta Añorgara joaten nintzen erremedio bila. Senarra ere duela 7 urte hil zait, medikuek hiletsita zeukatzen, baina nik beste 13 urtez eduki nuen bizirik. Eginaz ere asko ikasten da.

- **Nola gertatzen dituzu pomadak?**

- Pomadak 8 gauza ditu, baina ez dizut esango

# PAULA ALBERDI

**Paula Alberdi osintxuarra ez da medikua, baina bere jakintasunari esker hainbat gaisotasun sendatzeko gai da. Izan ere bere pomada, jarabe eta enplastoak ezagunak dira EuskalERRI osoan. Ez bakarrik jedearen artean, medikuek ere izan dute Paularen berri eta badira batzuk Osintxuko Andrearen sendagaiak erabiltzen dituztenak.**

## Osintxuko sendagilea



"Etxean gauza asko gertatu zaizkit eta horrela ikasten da..."

zer duen; hauek egiteko belarra erabiltzen dut. Belarra ondo zaindu behar da eta hartzeko orduan sikua egon behar du. Gero ere belarra ondo si-

katu behar da eta horretarako bentiladore bat erosi dut.

- **Enplastoak ere erabiltzen dituzu gaisotasunak osatzeko, baina**

**ondo jarri behar dira ez?**

- Bai, askok plastikotan batuta jartzen dituzte enplastoak ez zikintzeko edo, baina plastikoa jartzea onerako izan beharrean txarrerako da; bartzuetan gaisotasuna gelditu beharrean hedatu egin dezake. Jende asko enplastoak etxean egin

**"Sendagaiak neurrian erabili ezean kaltegarriak izan daitezke"**

**anezka**

**Udazkenerako oihalak eta lenzeria**

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

**TOKI-ONA**

**Bodegoia-Taberna**

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

**MUGICA**

Goxotegia



**pastelak, errellenoak, tostoiak, tartak...**

Artekale, 3  
☎ 76 10 34



beharrean nire etxera etortzen da eta hemen egiten diet enplastoak. Izan ditut gaisoak medikuek gripea dutela esan eta neumonia izan dutenak; horrekin birrikak pikatuta gelditzen zaizkie eta enplastoekin birrikak garbitu egiten dizkiet. Berakata ere izugarri ona da, ordea, frijituta ontzi handietan daukat sartuta. Belarra pikatu eta berakatarekin oso ona da.

**- Zure botikek sendatu egiten dute, baina horretaz aparte fedea izatea garrantzitsua da, ez?**

- Fedea norbere buruan. Jainkoagan sinistea ez da nahikoa, norberaren buruan ere konfidantza izan beharra dago. Zuk pentsatu behar duzu "hau egiten badut, sendatu egingo naiz". Niregana etorri izan dira galdetzen zer egingo dien tratamendu horrek. Horiei, ez dutenei sinisten, ez diet ezer ematen, ez dutelako tratamendua egingo.

**- Hainbat gaisotasun sendatzeko gaitasuna duzu eta kantzerra senda dezakezu?**

- Segun non dagoen eta zela dagoen. Azalekoak garaiz hartuz gero senda daitezke, baina barrukoa txarra da. Kantzerra duten gaisoei esango nieke "Kortisona"rik ez hartzeko, berak ekar dezake kantzerra eta.

**- Ze harreman ditu-**

**zu medikuekin?**

- Bertolucci Arrasateko zentruan lan egiten duen mediku italiarrarekin harreman handia dut. Nire pomadak erabiltzen ditu. Bere amak artritisa du eta esan didanez nire pomadak ondo egiten dio. Cruceseko mediku batzuk ere erabiltzen dituzte nire pomadak. Evertera joan ziren Azpeitiarrrek ere nire pomada eraman zuten erreduren kontra, "El Fabuloso" deitzen diote.

**- Zure jakintasuna norbaiti pasatzeko asmorik ba al duzu?**


- Nire semea den Luis Marirekin hastekoa naiz.

**- Non batzen dituzu belarrak?**

- Bizkaian, Laredora ere joaten gara. Azkotitik ekartzen didate, baina gehienak geuk batzen ditugu. Belar mota asko erabiltzen ditut, baina belarra bere neurrian erabili behar da; agindutako neurrietan erabili ezean kaltegarria izan daiteke. Belarrak urtero aldatzen ditut eta berriak batzen ditut.

**- Zure lanbidean, azken boladan ez al dago gezurri asko?**

- Bai, asko. Hemendik eraman izan didate belar eta pomadak, gero eurak prezio altuagoan saltzeko. Ez jakin asko ere badago. Beste behin, etorri zitzaidan tipo bat ikusmen arazoak zituzten gaisoak beragana bidaltzeko



"Enplastoak gaizki jarri ezker, gaixotasuna sendatu beharrean gaiztotu egin dezake"

esanaz. Berak agintzen eta harrigarriena zen bezueuz, betaurrekoak sekulako auzentzen iritsi arte konpuzten zuen ikusmena erabil-tzen zituela.

## Pomadita PAULA

**Paula Alberdiren produkturik ezagutuena bere pomada da. Bere edukinak ez dizkigu esan. Baina golpe, erredura eta beste gauza askorentzat sendagaia dela ziurtatu digu. Osintxun oso ezaguna da bere pomada eta etxe askotan mirari ugari egin ditu pomadita Paulak. Pomadaz gain karakolak ere erabili izan ditu gaitzak sendatzeko. "Nik tronbosisa izan nuen eta medikuarengana joan nintzen eskuan, hankazpian eta kokotean karakolak ipinita. Eskukoa eta hanka azpikoa bihotzekoa ez emateko eta kokotekoa burukoa ez emateko. Arrasateko urgentzian esan zidaten karakolek ez zutela ezer egiten eta errekonozitzeko kendu egin nituen. Baina hurrengo egunean onera sekulako diferentzia egin nuen eta urgentziatakoak harrituta geratu ziren"**

**YAZKI**  
**UME GAZTE**  
**Neska eta Mutil**  
 Irizar 3      Ibargarai 8  
 ☎ 76 16 54      ☎ 76 54 73

**BOLINTXO**  
*Kirola egiteko  
 behar den guztia*  
 Ibargarai 10,  
 ☎ 76 38 32

**EDURNE**  
**Merzeria - Lenzeria**  
 D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



## sarrera modura

**Kaixo lagunok!. Gazteok, eta hain gazte ez zaretenok!! Hemen gatozkizue sail honetako gure 2. alean, eta Berri-Gazteko 10.ean. Zein den gure menua?. Hasteko, orrialde honetan daukazue alkatearekin eginiko berriketa saio gogor baten ondoren jasotakoa. Hurrengo orrian, berriz, hor dituzue gazteen etorkizunari buruzko erreflesio batzuk, zaharrek gurekiko duten ikuspegiarekiko ere beste zerbait, "ezetz igarri" sailean asmakizun batzuk eta, azkenik, gure eskolan burututako obra batzuei buruzko iritzia. Onegin deizuela!!**

## VICTORIANO GALLASTEGI

• **Zer moduz ikusten duzu gaur egungo gaztedia?**

• Oso ondo. Harreman onak, prest egoten dira edo zer egiteko eta gainera esaten dudan bezala, gauza guztiak ondo egiteko.

• **Zure gazetako denborak eta oraingoak berdinak al dira?**

• Ez. Oso aldaketa gogorra dago. Ni gazte nintzenean ez nituen aukera asko izan bai kirol mailan, aisi mailan, etab... eta gainera logikoa da, gauzak aurrera joaten dira gaur egun.

• **Jaiak joan zen urtekoak bezalakoak izango al dira?**

• Bueno, guk ahaleginak egingo ditugu urtero jaiak hobetzeko. Gutxienez joan zen urtekoak bezain onak

izatea espero dugu. Ahal bada hobetzen joango gara.

• **Zezenak non Plazako obrak direla eta?**

• Joan zen urtean zezenak ez ziren plazan izan, estazioko plaza portatitelaan baizik. Plaza aurtan ere oraindik obratan egongo denez estazioan izango dira.

• **Altos Hornoseko jaiak ez direla egin behar entzun dugu. Hori egia al da?**

• Udaletxeak ez du harremanik hori baieztatzeko, auzoko jendeak baizik. Guk Udaletxe bezala diru-laguntza bat eman geniezaieke auzokoei, hortik aurrera ez dut ezer esatekorik.

## Alkatearekin berriketan



• **Aspaldian Bergaran polemika handia sortu duen gai batera pasatuz, Gaztetxearen asuntorai begiratuta zure alkate karguarekin aspertu zara?**

• Ezta pentsatu ere. Harreman onak eta txarrak izan ditut Gaztetxearekin. Oztopo txiki batzuk izan ditut, baina asko izan da informazioa gaizki eman delako. Al-

kateari eta alkatearen gornuari kulpa asko eman diete, euren erantzunkizuna zela hortik ateratzea. Gu zabalik gaude gazteadiarekin harremanak edukitzeko. Lokal bat eduki behar dutela eta gazte askok badauzkate lokalak udaletxe honetan.

• **Zergatik uste duzue gazteek hainbeste txokatu dugula guraso eta negusiekin?**

**"Ni gazte nintzenean ez nituen aukera asko izan bai kirol mailan, etab..., eta gainera logikoa da gauzak aurrera joan aurrera gaur..."**



# MARIAREN LAGUNDIA

## 10. ZENBAKIA

• Eboluzio bat da. Nahiko logikoa da gazteek eskaera asko baitute, eta haiei erantzutea nahiko zaila da. Harreman horiek jatorrak izan behar dira, bai gurasoekin, bai politikoeekin...

• **Bergarako gaztediak zer egin beharko luke hobetzeko?**

• Talde asko daude, eta euren artean elkartu egin beharko lirake. Ideiak asko finkatu eta udaletxea ere alde dute laguntza emateko. Hori dena aztertzen gaude.

• **Gazteek nagusiekin gehiago hitzegin beharko lukete beraien arazoez?**

• Ados nago, nik ere badauzkat seme-alabak eta klaru daukat beraien artean hitzegin behar dutela. Eta beraien artean informatu dauzkaten arazo guztietaz. Horiek ez dira barnean geratu behar, kanpora atera behar dira, bai aitari, zein amari, lagunei...

• **Gure adineko jendea inguruko herrietara joaten da martxa bila. Zerbait pentsatu al duzu jendea herrian gelditzeko?**

• Badakit herriak zerbait falta duela horri buruz. Ez da erraza urte batetik bestera hori konpontzea. Lokalak eta dirua behar dira, eta pentsatzen dut gazteek inizatiba izan behar dutela guzti hori aurrera ateratzeko. Erraza da esatea Bergaran ez dagoela ezer, bai-

## iritziak iritzi

### Gurasuen ikuspuntutik

Gazterixia? A zer nolako alproja kuadrilia!! Horrela deskribitzen gaitu edadian pasautako makina batek. Zaharrak edo gurasoak beti dihardue antzerako kontuekin.

Eguakitz gabian etxetik urteterakuan, betiko errosarixua: formal etorri gero, eh? (hau behintzat etxe geixenetan entzungo dala seguru nago). Eta holakuak, beste mila gauza. Ia kasurik egiten dotseun?. Bueno ba, danetik dago. Eta hori da txarrena (ala onena?), danetik dagola eta gazterixiaren gainian berba egitterakuan hau ez dabela kontutan hartzen, eta danok zaku berdinian sartzen gaittuela. Gazterixiarekin lotzen dituden lehenengo gauzak alkohola eta alperkerixia dira. Kirola eta beste zenbait gauza on, gero datoz. Horrek, gero.

Bueno eta herriko jaixak ailegatzen diranian, askok beste nonbaittera juatia nahi izaten dau. Hau ez dago batere gaizki, baina jaittan beste munduko zezozer pasauko ete dan pentsatzen dabe. Egixa da, herrixa egoera negargarrixan geratzen dala, baina urtian behin be badira bakarrik, ez?

Gainera, a zelako jaixak!! Nik behintzat ez nittuzke galduko!. Hori bai, gaztiok gurasuak baino ilusiño geixago eukitzen dogu jaixak ailegatzeko: eta hainbai izan leikela kanpora juatian arrazoittako bat. Gaztia gazte!!

KIXKI

### Kanpo zaharren nostalgia

1993ko udaberrian zenbait konponketa egiten hasi ziren gure eskolako kirol kanpoetan. Sekulako ilusioa geneukan jolastoki berri eta moderno bat edukitzearekin. Heldu da 1994eko udaberria, eta hor daukagu kanpo berri hori begien aurrean. Gure oroitzapenak datozkigu gogora: txikitan ziburuetan egindako jolasak eta batez ere, lehenengo kanpoaren kolore berde paregabea. Hauxe kontua, gazte eta nostalgiko!!

Oraindik ere, zelai ugari eduki arren, ez da lehengoa bezalakoa. Lehen, tortila patata lehiaketak, zizenak eta denetarik izaten genuen eskolako jaiak. Orain, berriz, ikusteko dago zer egin ahal izango dugun. Lehengoaren nostalgia apur bat izan arren ere, gimnasioa zeharo berri eta aldagela ederrak ere jarri dizkigute. Dena ezin ba lortu!! Edozer egoerak ditu alderdi txar eta onak. 1993ko udaberrian eskabadorra eta kamioiek eraman ziguten beste, ia 1994eko kuku hotsak ekartzen digun. Hala espero!!

TXURRU, MURRU,  
PUKU ETA KULLU

na lehen behintzat herri mailan izugarriko ambientea egoten zen.

• **Berdury Halla jari behar al duzue?**

• Oraindik ez daukagu ezer erabakita horri buruz,

berdura plaza zerbitzueta-rako bait dugu. Momentuz ezin dezaket ezer egin.

• **Zure semeek proposamenik egiten al dizute?**

• Bai, eskaera gehienak gazteenak dira. Asko gaine-


ra: ze grupo ekarri behar den jaietarako, lokal falta dagoela,.... Oso erreklamazio gogorrak ditut etxean.

BATXILERGO  
OROKORRA, 1. MAILA

lan, aisi mailan  
gaur egun"



# Uda gero eta gertuago dagoela eta, gorputza bereziki zaintzen hasi zara?



**Mikel Arregi**  
22 urte, ikaslea

Udaberri inguruan urteko beste sasoi batzutan baino kirol gehiago egiten dut baina dietarik ez.



**Carlos Orbea**  
26 urte, ikaslea

Urteko sasoi guztietan zaintzen dut gorputza, kirola egiten dut forman egoteko, futbola eta igeriketa batez ere. Udaran bizikleta ere bai.



**Sonia Franco**  
19 urte, ikaslea

Aste Santuan kirol pixkat egin dugu, eguraldi onarekin gehiago izaten da eta. Baina dieta eta horrelakorik ez dut egiten, denetarik jaten dut.



**Isabel Sanz**  
28 urte, langilea

Bai, uda gero eta gertuago daukagu eta arropak pixkanaka kentzen hasten gara, horregatik gorputza gehiago zaintzen dut, kirol pixkat ginez...



**Julian Alberdi**  
40 urte, langilea

Kolesterola dela eta jaterako orduan zaindu egiten dut gorputza baina urte guztian zehar, ez uda partean bakarrik.



**Idoia Bollar**  
24 urte, langabetua

Ez dut gorputza bereziki zaintzen, urtean zehar ejerjizioa egiteko ohitura daukat eta orain ere berdin jarraitzen dut.

**Aranzabal**

**OIHALAK**

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

**Zatoia**  
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

**JAUJA KIROLAK**

Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**ARREGUI, E.M.**

**AROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38





## Liburuen gozamina

Espainiar Estatuko biztanleatariko portzentai oso altuak, % 28ak uste dut, ez zuen liburu bakar bat ere erosi 1993ko urtean orain ez asko irakurri dudanez. Hau oso adierazgarria da, nik uste gure irakur zaletasuna zenbaterainokoa den azaltzeko.

Eta badakit liburuak oso garesti daudela, baina hori ez da ez irakurtzeko aitzakia. Ez dago libururik erosi beharrik irakurtzeko. Herri gehienetan dago liburutegirik jendeak liburuak noiz eskatuko zain, baina seguru askok oraindik bertarako biderik ere ez dakitela.

Nik irakurtzea asko atsegin dudalako izan daiteke agian nola pertsona bat urte osoan liburu bakar bat irakurri gabe egon daitekeen ez ulertzearen arrazoia. Ez daki bere burua zertaz pribatzen duen; egun osoko lan neketsua eta gero oheratzean liburu pixka batez hartzea bezalakorik... Pertsonaiekin bat egin, beraiekin batera gozatu edo sufritu, leku ezezagunetan zehar bidaiatu...

Frogatu ez duenak frogaz dezala, eta gauero bere burua liburu gaumahaian uztera beharko du hurrengo goizeko lan egunerako ordu dexente lo egiteko.

**Monika BELASTEGI**



## Ezkontza arazoak

Alderdi politikoen arteko elkartzeak komenientziak izan ohi dira beti, ezkontza asko bezala, eta azken hauetan gertatu ohi den moduan, aspertuta edo beren izakera bateraezinak direlako edo beste zerbaitengatik, elkarri erasoka bukatzen dute. Eta horixe dugu PSE-EE eta PNVren artean gertatzen hasi dena, bai Bergarako Udalean eta baita, kasualitatez edo ez, Eusko Jaurlaritzan ere.

Europar hauteskundeak eta, batipat, autonomikoak, gainean direla eta, alderdietako zuzendaritzek nondik aldendu eta norekin eztabaidatu adierazia izango dute; eta gure udalerrian, agindutakoari jarraituz, hasiak dira udal gobernuko bi kideen arteko urruntzeak.

Baina Bergaran badira elkarbizitzan sortu ohi diren beste konponezin batzuk ere, garrantzi handiko hainbat bozketatan nabarmen geratu direnak, bai Arau Subsidiarioen bozketan, Intsumisioari buruzkoan, Kontsumitzaileen Udal Bulegoari (KIUB) buruzkoan eta, duela egun gutxi, Jardun eta Berrigararekin egindako hitzarmenetan.

Alderdiek ere, senar-emazte askoren antzera, elkarren ondoan sufritzea nahiago izaten dute, dibortzioa ebitatu nahian, hau oso garestia baita, are gehiago beste alderdi batzuk halako konponezinak aprobetxatuz gobernatzeko aukera izan dutenean.

**Juan Antonio MIGURA**

APIRILAK  
**24**

GOIZEKO  
**11etan**

KUOTA:  
1.000 pzta / 50 libera

INSKRIPZIO EPEA:

Apirilaren 11tik 21era

INSKRIPZIO PUNTUAK:

Bolintxo Kiroalak

La Caixako sukurtsaletan

EUSKALDUNON **Egunkaria** -REN

aldeko

**ANTIGUAKO  
IV. KROSA**

Korrikalari guztiei kamixeta bana oparituko zaie,  
eta BI BIDAIA zozketatuko dira



**KELER**

**ES** oto istema *APBeniz*

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50





**Bergararrak ETBko Futbol Txapelketan**

**Bergara K.E.ko** lau gaztetxo Euskal Telebistak asteartetan eskeintzen dituen futbol partiduen atsedendian gaztetoentzat (11-12 urte) antolatutako txapelketaren finalean izango dira asteartean, hilak 19. Bergararrek Aretxabaleta (3 eta 0) eta Eskoriatzako (1-0) taldeak gainditu dituzte orainarte eta asteartean Deba edota Eibarren kontra jokatuko dute finala Ipuruan. Aupa mutilak!!

Txapelketan talde bakoitzeko lau jokalaria aritzen dira. Argazkian, zutik, Iulen Aranburu eta Iulen Berraondo defentsak. Makurtuta, berriz, Ignacio Dobao eta Andoni Arrieta aurrelariak.

**Huajoloteak Pol-Polen**

**Kojon Prieto y los Huajolotes** musika taldea asteazken arratsaldean Pol-POI tabernan izan zen, beren hurrengo diskorako materiala grabatzen. Huajoloteek zuzeneko emankizunekin lortzen den giro berezia isladatu nahi dute hainbat abestitan. Pol-Polen eman dituzten kontzertuen arrakasta ikusita, ezin estudio hobeagorik aukeratu...



Huajoloteak asteazkeneko grabaketan. Ezkerraldean Leire Ibarzabal bergararra bibolina jotzen.

**Aldoka  
Maldoka  
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**GURIA  
Taberna**

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**BERGARA  
Karrozeria**

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31





JON ALBENZ

### Bergarako aitona hil


**Jose Manuel Telleriarte Iturbe** 104 urteko bergararra astertean hil zen Mizpirualdeko Egoitzan. Pasa den irailaren 27an bete zituen 104 urte eta Bergarako aitona genuen. Taxista izan zuen ofiziotzat. Mizpirualdeko monja batek esan digunez, *"ondo zegoen eta eta ez du batere sufritu baina guztioi bezala bere ordua iritsi zaio"*. Bere aldeko hileta elizkizunak asteazkenean egin ziren Santa Marinan. Goian bego.

### Hiru Haundietan

**AEDk** antolatuta, Hiru Haundietara mendi irteera egin zuten pasa den astean Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta, Eskoriatza eta Bergarako 63 gaztek. Hain izan ziren, besteak beste, **JARDUN-eko** Gazte Taldeko bost lagun. Hiru egun elkarrekin primeran pasa eta Aizkorri, Deba ibaia hasten deneko tokia, Gatzaga, Urkiola edota Aramaion izan ziren.



## Zertan dibardute ba?



**Jon Berasategi** 24 urteko bergararra izango da Pol-Pol Mendizale Taldeko idazkari berria. Jon Enpresaritzza Zientzietan lizentziatua da Bilboko Sarriko Fakultatean eta lan postu horretan 4 urtez egon den Maite Irizar bergarar gaztea ordezkatzeko du. Bere hitzetan, *"nere lana gebienbat publikora begirakoa izango da: karnetak tramitatu, skiko kontuak eraman... administrai lanak eta papeleoa azken batean"*. Gaur egun Pol-Pol Mendizale Taldeak 1.700 bazkide inguru ditu. Jon Ander Gantxegik zuzentzen duen taldeak Udal Kirol Zerbitzuarekin eta JARDUNekin batera Mendi Astea iragarri du datorren asterako.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

**Usoa Pub**



Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1

**TENERIFERA!!**

**Bolu Gimnasioan** hilabeteko kuota ordaintzeagatik, **Kanarietan** bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.



B • O • L • U

**ZATOZ!!**



# Joakin Balzategi

**Beti txantxetarako prest, Joakin Balzategi (69 urte), Jubilatuen Egoitzako idazkaria izan genuen. Orain, beste lau lagunekin batera, JARDUNeko Txorimalo Lehiaketan 2. saria eskuratu zuen.**




*"Pelotan jokatu eta bizikletan ibiltzea gustatzen zait; orain 10 urte kolesterola zer zen ere ez nekien eta orain, berriz, sarriegi joaten naiz medikuarengana. Aktoresten artean Marilyn Monroerekin geratzen naiz"*

- Jubilazioa ala lana?
- Nahiz eta jubilazioan ondo bizi, lan egitea hobe.
- Boloak ala mus partidak?
- Musean gehiago.
- Medikoarengana zenbatero?
- Orain sarriegi, baina hogetaka urte joateke egon naiz.
- Kolesterolari beldurrik?
- Badaukat baina orain 10 urte zer zen ere ez nekien.
- Bazkari bat.
- Baba gorriak.
- Kirola egin ala ikusi?
- Egin, pelota eta bizikleta.
- Bertsolari bat.
- Sebastian Lizaso.
- Egin duzun juergarik onena?
- Soldaduzkako despedidetan.
- Ligatzeko orduan, lehen ala orain?
- Orain aukera gehiago...
- Non jarriko zenuke txorimalo

bat?

- Moncloa parean.
- Eta txorimalorik haundiena, zein?
- Mordua daude... apartatu ezin.
- **Telebistako programa bat.**
- Akziñoko filmak eta dokumentalak.
- **Argiñano ala Subijana?**
- Subijana.
- **Patxi Añonso ala Gorka Reizabal?**
- Reizabal, Realekoa naiz eta.
- **Indurain ala Olazabal?**
- Olazabal.
- **Aktorea bat?**
- Marilyn Monroe, iztar ederrak zeuzkan eta...
- **Amets bat.**
- Mundua ikusi, bidaiatzea.
- **Miresten duzun pertsonaia bat.**
- Fleming.
- **Gustoko ez duzun beste bat?**
- Hitler.
- **Etxeko lanik egiten al duzu?**
- Bai, oheak egin, errekaak...
- **Bazkalostean, siesta ala pasiatzea?**
- Pasiatzea.
- **Gaztetxe baten izan zara inoiz?**
- Gure gazte denboran ez zegoen holakorik...
- **Noiz konfesatu zara azken aldiz?**
- Ezkondu nintzenean.
- **Azken pekatu txikia?**
- Gezur batzuk esan andreari.



## ARANE

### BIDRIERA ARTISTIKOAK

*Muralak, bidrierak, grabatuak, biselatuak, ispiluak eta era guztietako kristaleria egiten dugu.*

Iñigo Zabaleta

ZUZENKO SALMENTA

Arane-Barrengoia baserria. Arane auzoa 20.570 BERGARA

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

### Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA



# LASA

## Jatetxea

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29






**zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**MARIA OTAEGI**

"Begarako Santo Kristoa", San Pedro elizako kaperan dagoena Juan de Mesak egin zuen. Erantzun asko jaso ditugu aste honetan, baina oraingoan **MARIA OTAEGI**ri tokatu zaio. Berarentzat izango da, beraz, **ZUBIKUA JANTZIDENDAK** emandako sari bikaina. Zorionak **MARIA**ri eta besteok segi jokatzten.

**SANTOS**  
**IRRATI-TB**

**SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOAK**

Koloretako TB, bideoa, soinua,  
elektragailuak, antenak, sukaldeak  
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10





**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16





MARIA OTAEGIk jaso du aste honetan ZUBIKUA JANTZIDENDAK emandako saria.



umelaga  
JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5 BERGARA  
☎ 76 20 21

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
HERRAN ETXEAK  
emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Antzuolako Udalak atera berri du udalerrriaren mapa bikaina. Bertan mendi, baserri eta hainbat zehaztasunez gain, leku izen ikusgarria ematen da, toponimoenganako zaletasuna duenarentzat material ezin hobea delarik. Beste bitxikeria bat ere badakar mapa honek, behingoz udalerrriaren mugak finkatzen dituela, orain arte Bergaran zergak ordaintzen zituzten hainbat baserrik hemendik aurrera Antzuolan egin beharko dutelarik. Hau duzue aste honetako galdera:

**Zein baserri dira Bergaran zergak ordaindu beharrean dagokien udalerrian, Antzuolan, ordaindu beharko dutenak?**



\_\_\_\_\_

izena

\_\_\_\_\_

abizena

\_\_\_\_\_

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



**1. maila**

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura IND. GOL	30	15	15	0	0	65	16
2. Errotagain	25	15	12	1	2	72	26
3. Angiozar	23	16	10	3	3	85	43
4. Tokieder	22	15	10	2	3	86	35
5. Bildurbarek LAM	18	16	10	0	6	75	67
6. Usoa	18	16	7	4	5	49	43
7. Bar Canalejas	18	16	7	4	5	54	51
8. Arloteak	17	16	7	3	6	47	52
9. Mongatxurra	14	15	7	1	7	59	45
10. Os Jardineiros	14	16	5	4	7	62	75
11. Guadalest	14	16	5	4	7	38	57
12. Ogizun	13	15	5	3	7	42	65
13. Nahikari Hool.	13	16	5	3	8	40	48
14. Ezinleike	13	15	5	3	7	42	65
15. Akort Ariznoa	12	15	5	2	8	50	70
16. OH Zerezos	10	16	4	3	9	43	71
17. Kriston Potruak	9	15	4	2	9	61	67
18. Soropotroak	8	16	4	0	12	43	63
19. Kriterium	8	16	2	4	10	38	61
20. Shaktale	8	16	3	2	11	36	90

**2. maila**

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	40	23	20	1	2	120	52
2. Kalimotxo	38	23	19	0	4	134	58
3. Ufala	37	23	18	1	4	111	47
4. Revienta	37	23	18	1	4	97	55
5. Etxagi	36	23	17	3	3	146	70
6. Ozaeta	35	23	16	3	4	141	58
7. Hartu Zamak	35	22	17	1	4	107	61
8. Uve Bikoitza	30	23	14	2	7	122	84
9. Eri	29	22	13	3	6	107	65
10. Amozkibar	25	22	11	3	8	86	63
11. Igandekoak	24	23	12	0	11	80	82
12. Ari Ari	24	23	12	0	11	102	105
13. Txipiron	23	23	9	5	9	63	68
14. Kirolzaleak	21	22	10	1	11	77	98
15. Paok San Juan	20	22	9	1	10	70	76
16. Matalascañas	19	23	8	4	11	61	80
17. Krai	18	22	9	0	13	92	98
18. Labegaraieta	15	23	6	3	14	45	118
19. Los Txupeta	14	23	6	2	15	59	87
20. EH Biterrak	12	23	4	4	15	54	95
21. Aldoka Maldoka	12	22	5	2	15	53	113
22. Pata Negra	11	23	5	1	17	60	128
23. Eusebio II	9	22	4	1	17	60	122
24. KK Usaina	4	21	2	0	19	40	155

**emaitzak**

Os Jardineiros	<b>6 5</b>	Bar Canalejas
Arloteak	<b>6 2</b>	Errotagain
Shaktale	<b>1 4</b>	Nahikari Hool.
Kriston Potruak	<b>2 4</b>	Akort Ariznoa
Mongatxurra	<b>5 7</b>	Bildurbarek LAM

**hurrengo partiduak**

- **LARUNBATA** •  
kanpoan
- 9.00: Madura-Tokieder (Bildurbarek LAM)
- 10.00: Bildurbarek-Akort Ariznoa (Usoa)
- 11.00: Usoa-Shaktale (Ezinleike)
- 12.00: Errotagain-OH Zerezos (Errotag.)
- 16.30: Guadalest-Os Jardineiros (Sorop.)
- 17.30: Soropotroak-Kriterium (Arloteak)
- 18.30: Arloteak-Bar Canalejas (Kriterium)
- **IGANDEA** •  
kanpoan
- 16.30: K. Potruak-Ogizun (Mongatxurra)
- 17.30: Mongatxurra-Nahikari H. (K. Pot.)

**emaitzak**

Labegaraieta	<b>1 0</b>	Hartu Zamak
Txipiron	<b>6 2</b>	Matalascañas
Ari-Ari	<b>7 5</b>	Los Txupeta
Igandekoak	<b>6 4</b>	Paok San Juan
Krai	<b>2 5</b>	Uve Bikoitza
Arkupe	<b>2 0</b>	Eusebio II
Etxagi	<b>8 6</b>	Ozaeta
Kalimotxo	<b>2 5</b>	Revienta
Amozkibar	<b>3 3</b>	Matalascañas
Ufala	<b>9 1</b>	Aldoka Maldoka
EH Biterrak	<b>5 7</b>	KK Usaina

**hurrengo partiduak**

- **IGANDEA** •  
barruan
- 16.30: Igandekoak-Amozkibar (Kiroz.)
- 17.30: KK Usaina-Kirolzaleak (Paok S. J.)
- 18.30: Paok -Aldoka Maldoka (KK Usaina)

**Txinpartak**

▼ Antolaketa Batzordeak Hartu Zamak taldea zigortzea erabaki du, Labegaraietaren aurka jokatu behar zuen partidura ez agertzeagatik. Neurketa 1 eta 0 Labegaraietaren alde eman dute antolatzaileek eta horrez gain, bi puntu kendu dizkiote Hartu Zamak taldeari. Honekin lotuta esan nahi dugu, asko dira partiduetara behar den orduan agertzen ez direnak. Batzuei zigortu egin zaie horregatik baina beste batzuk ez dute oraindik zigorririk jaso.

▼ KK Usaina taldeak bi partidu irabazi ditu jarraian. 19 jardunaldi eman ditu partidu bakar bat irabazteke eta azken bi asteetan jokatu dituen biak irabazi ditu. Lau puntu ditu dagoeneko, oraindik saikapenaren azken postuan aurkitzen den arren.

**Golegileak**

**LEHEN MAILA**

1. F. Salinero (Ogizun) .... **32**
2. I. Pagaldai (Angiozar) .. **25**
3. I. Mujika (Tokieder) ... **23**
4. B. Jimenez (Kris. P.)..... **22**
5. Arriaran (Angiozar) ..... **20**

**BIGARREN MAILA**

1. Agirezabal (Kalim).... **57**
2. Agirrebeña (Ozaeta) ... **55**
3. J. Izkizka (Etxagi) ... **52**
4. J. Larrañaga (Eri) ..... **45**
5. Agirezabal (Ozaeta) .. **40**



# EUSKADIKO ITZULIAN

## Angel Bideluze

### Txirrindularien atzetik motorrean

**Angel Bideluze bergararrak motorista lanak bete zituen pasa den ostiralean amaitu zen Euskadiko Txirrindulari Itzulian.**

**- Zela sortu zitzaizun bertan lan egiteko aukera?**

- Megavideo Durangoko produktorearen bitartez. Hainbat motorista kontratatu gintuen eta niri zuzeneko emankizunean lan egitea tokatu zitzaidan. 3 motor ginen: 2 kamarekin (ni tartean) eta bestea errepideko kazetariarekin, Fermin Aramendirekin. Laburpenetarako beste 3 motorista zeuden. Inaki Lopetegui kamarak osatu du motoristen ekipo berria eta Fernando bere anaia ETBko errealizadorea da; berak ematen zizkigun aginduak, plano hau edo bestea hartzeko.

**- Eta zer moduz motorrean hainbeste ziklista artean?**

- Esperientzia polita izan da baina eguraldiak ez du batere lagundu. Ibardin, helikopteroak ez zuten irtetzerik izan eta ezin izan ge-



Angel Bideluze (ezkerrean), bere anaia Patrirekin Gorkako igoeran.

nuen irudirik eskeini. Bestalde, txirrindulariei traba ez egiteko kontuz ibili behar; igandean Zornotzan sekulako sustoa hartu genuen, Montoyak gure aurreko motoaren kontra istripua izan eta gero. Eskerrak ez zela ezer larririk gertatu...

**- Bertan segitzeko asmorik?**

- Bai, besteak beste, Euskal Bizikletan, Donostiako Klasikan, Urkiolako igoeran edota Galiziako Itzulian izango gara. Ahal diren guztietan.

**- Eta zein da zure ziklista favoritoa?**

- Ni Marinozalea izan naiz beti, gainera nere urtetakoa da. Orain, Neil Stephens ONCEko australiarra gustatzen zait: estilo arraroa dauka baina karrera guztietan ematen du aurpegia.

## Martin Arriaran 11. postuan, Euskadiko Xake Txapelketan

Martin Arriaran xake jokalaria bergararrak 11. postua eskuratu zuen Zarautzen jokaturako Euskadiko Xake Txapelketan. 26 partaideen artean, Martin 22.a genuen rankingean baina hori ez zen oztopo izan Martinek emaitza ona lortzeko. Bere hitzetan, "azkeneko partidari, Arrietaren kontra, gehiegi arriskatu eta tablak egin nituen. Hori irabazi eta 8. postua eskuratzeko aukera ezinhobea nuen. Dena den, pozik nago lortutakoarekin". Martinek 7 puntu posibleetatik 3,5 egin zituen eta Donostiako Openean, berriz, 4,5/9. Orain dela bi urte Bergaran jokaturako Euskadiko Txapelketan ere, 3,5 puntu eta Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuen Martinek; "ez dakit oraingo honetan balioko didan; hala ez balitz, abuztu aldera Oloteko Nazioarteko Txapelketan parte hartzeko asmoa daukat. Egunak bateragarriak badira bietan egoteko itzaropena daukat".

## KIROL KARTELDEGIA

### FUTBOLA

Bergara-Zarautz  
Preferente maila  
Igandea, 17.00, Agorrosin.  
Bergara-Elgoibar  
Lehen mailako kadeteak  
Larunbata, 16.30, Ipintza.

### SASKIBALOIA

Bergara-Aldapeta  
Jubenil mutilak  
Igandea, 12.15.  
Aranzadi Ikastola-San Viator  
Infantil mutilak  
Igandea, 12.15.  
Biak Kiroldegian

### ESKUBALOIA

Bergara-Usurbil  
Jubenil mutilak  
Igandea 10.30  
Labegaraieta Kiroldegia

### PALA TXAPELKETA

9.00: Arroi eta Manzanedo/  
Narbaiza eta Madariaga.  
10.00: Sanz eta Berroeta/  
Otaño eta Martinez  
11.00: Lizarralde eta Zangitu/  
Garitano eta Lete  
12.00: Etxeberria eta Alberdi/  
Azkarate anaiak.  
Guztiak Osintxuko Frontoian.

### PELOTA

Afizionatuak:  
Bergara-Billabona  
Herri Arteko Txapelketako  
itzulera partiduak (Infantil,  
Jubenil eta Senior kategoriak)  
Ostirala, 21.00,  
Udal Pelotalekua.  
Profesionalak:  
• Lujanbio eta Urria /  
Goñi eta Oriden  
• Salaberria eta Arretxe /  
Urionaguena eta Zezeaga  
• Errandonea / Irazola  
(2. Mailako Banakako  
Txapelketa). Larunbata, 16.30.



Jose Mari Zezeaga, Arretxeren partidu batean.





J.M. LASA

## Mendia protagonista

*Astelehenetik igandera bitartean, mendiaren inguruko hitzaldiak, diapostiba emanaldiak...*

Udal Kirol Zerbitzuak, Pol-Pol Mendizale Elkar-teak eta JARDUNek antolatuta, apirilaren 18tik 24ra bitartean Mendi Astea izango da Bergaran. Astelehenetik ostiralera ondoko diapositiba ema-

naldiak izango dira 19.30etan UNEDen: astelehenean, hilak 18, "Bergararrak Akonkaguan", asteartean "Aizkorri, lau urtaro" (Batis Goikoetxea eta M.A. Otsoa de Aldaren esku-

tik), asteazkenean "Contrastes" (Luis I. Glez.), ostegunean "Eskaladak Patagonian" (Jon Lazkano) eta ostiralean "Antartidako sinfonia" (Joseba Egibar).

### Mendi irteerak astebukaeran

Bestalde, bi irteera antolatu dira: larunbatean, hilak 23, mendiko bizikleta martxa egingo da. Ibilbidea honako hau izango da: Bergara (Bolu)-Antzuola (Uzarraga)-Gorla (Pol-Pol iturria)-Irukurutzeta-Osintxu-Bergara (Bolu)-San Martin Plaza. Irteera goizeko 10etan egingo da Plaza bertatik. Larunbatea ere bai, gaztetxoekin Txindokira egun osoko irteera izango da goizeko 8.30etan Fraiskoazuri plazan.

Bukatzeko, erakusketak ere antolatu dira: aste osoan zehar Pol-Poleko aretoan antzinako mendi materiala eta mendiko argazkiak ikusgai egongo dira. Azken hauek Agustín Gurrutxaga, Daniel Santos eta Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldekoen lanak izango dira.

## KIROL EMAITZAK

### FUTBOLA

- Prefente maila: Mutriku 2-Bergara 0
- Lehen Erregionala: Bergara 1-Beti Gazte 1
- Lehen mailako jubenila: Bergara 0-Burumendi 0
- Lehen mailako kadetea: Bergara 4-Aloña Mendi 1

### ESKUBALOIA

- Senior mutilak: Bergara-Gure Azkune
- Jubenil neskek: Usurbil 13-Bergara 12
- Kadete mutilak: Elgoibar 14-Bergara 14

### PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa Infantilak: Billabona 5-Bergara 18
- Jubenilak: Billabona 1-Bergara 22
- Seniorrak: Billabona 11-Bergara 22

### PALA TXAPELKETA

- Osintxuko Pala Txapelketa
- Lizarralde eta Zangitu 31
  - Etxeberria eta Alberdi 35
  - Azkarate Anaiak 35
  - Garitano eta Lete 12
  - Arroio eta Manzanedo 31
  - Sanz eta Berroeta 35
  - Otaño eta Martínez 35
  - Narbazia eta Madariaga 17



## OPEN FUTBOLIN BERGARA

LARUNBATA, 16

POL POL - OLLAGORRA - PIZINETAKO TABERNA

16.00etan:	<b>SARIAK</b>		
zozketa	50.000		
POL-POL tabernan	25.000	1.	10.000
23.00etan:	2.		3.
finalak			
PIZINETAN	<b>IZEN-EMATEA: 1.000 pzta bikoteko</b>		

**FINALEAN: ZERBEZA FESTA KELERen eskutik.**  
(lehen garagardoa doan)

## iRUDI

Erlojudenda Bitxitegia



Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

## ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Teileria ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auza





## Urbano Lópezen garajea Mintegin, 1930.

**E**rabat aldatu da azken urteetan Espoioia goiko bi argazkiekin konparatuz gero. Goiko argazkietan Urbano López bergararrak bertan zuen tailerra ikus dezakezue. Argazkiak 1930 urte ingurukoak dira eta Urbanorena gure herrian egon zen lehen tailerra izan omen zen. Garajea 1930.etik 1949.era bitartean egon zen zabalik eta gasolina ere saltzen zuen Urbanok. Horrez gain, txofer lanak ere betetzen zituen eta San Martzialera igo zen lehenengo berebila berea izan zen, "Infernukua" tabernak 1990. urtean ateratako egutegietan jasotzen zenez.

Ezkerreko argazkian Urbano López berak egindako fresadora batekin agertzen da, ikasle talde bati bere funtzionamendua azalduz.

Eskumako argazkian, berriz, Mintegi kalean zegoen tailerra ageri da. Errotulo batetan, "Garaje Taller Mecánico Urbano López" irakur daiteke; eskumakoan, berriz, "Garaje Gasolina Accesorios".

Argazkiak: Juan Luis González

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

**BEHEKO  
TABERNA**

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**ZUBIETA**  
**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



**ETXEBIZITZA**

**Pisu amueblatua** salgai Zabalotegi 1ean. ☎ 76 32 27.

**Garajea** salgai Santa Marinaran. ☎ 76 34 31.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Pisua alokatzen da.** Bulegoak jartzeko egokia. ☎ 76 16 89.

Zubiaurren **pisua alokatzen da.** ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

**Apartamentu** zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

**Garajea salgai** Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

**Pisu amueblatua** salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

**Pisua salgai** Artzamen-din. ☎ 76 44 60.

**Pisua alokatzen da** Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Etxebizitza amueblatua** alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (arratsaldez).

**DENETARIK**

**Kotxearen irrati-kaseta** salgai (bi baffle). ☎ 76 37 29 (Martin).

**Remolke-denda** "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

**Edertze aretoa** traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

**Baserri bat** hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peavey** anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

**Motxila galdu** dut (barruan patinak). Topatu ezkerro deitu. ☎ 76 39 96.

**Paseozko Torrot bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 764868.

**Onix** motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**BX-16 TRS kotxea** salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

**Montesa Cota 335** (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

**Subijanaren sukaldaritza** liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

**Kanpin denda** haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauzez).

**Renault 21 TXE bat** salgai. 1988koa. ☎ 763868.

**Gas-Gas Enducross 250 motorra.** ☎ 76 43 48.

60 l.ko **arrainontzia** salgai. Filtro eta berogailuarekin. ☎ 76 04 63 (gauzez).

**Motxila beltz bat eta patinak** galdu zaizkit. ☎ 76 39 96.

**Butanozko Mepamsa estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

**Game-boy bat** salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

**LANA**

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**Haurrak/zaharrak zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filolojian** lizentziatuak, ingeles klaseak eman-garbituko nituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak zainduko** nituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

**Matematika eta Fisika klaseak.** ☎ 762457 (Josune).


**Zaharrak zainduko** nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Hildakoak**

**Juana Arrieta Lizarralde**  
apirilak 10, 93 urte  
**Jose Manuel Telleriarte Iturbe**  
apirilak 12, 104 urte

**Jaiotakoak**

**Jon Zabala Arroyo**  
apirilak 5  
**Iñigo San José Ruiz**  
apirilak 7



*Gari eta Elena*  
**ZORIONAK**  
*Eta Parisen ze... suflé*





**UNITED COLORS  
OF BENETTON**

**ZURE UDABERRIKO MODA  
IZUGARRIZKO PREZIOETAN**

**Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE**